



## BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUEN DEKRETUA BIGARRENEZ ALDATZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUAREN GAINEKO LEGEZKOTASUN-TXOSTENA.

23/2022 LT - LGAKZ

### I. AURREKARIAK

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Aholkularitza Juridikoak erreferentziako proiektuari buruzko nahitaezko legezkotasun-txostena egiteko eskatu du. Espedientean honako agiri hauek agertzen dira:

- Agindua, 2021eko azaroaren 2koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua aldatzeko prozedura hastea erabakitzen duena..
- Dekretu-proiektua, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua bigarrenez aldatzekoa.
- Agindua, 2021eko azaroaren 10ekoa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua aldeztu aurretik onartzen duena.
- Dekretu-proiektua justifikatzen duen memoria teknikoa, 2021eko azaroaren 12koa, Zerbitzuen zuzendariak egina.
- Prozedura osoaren memoria, Justiziako zuzendariarena, 2022ko urtarrilaren 14koa, eta beste osagarri bat, 2022ko otsailaren 17koa.
- Saileko aholkularitza juridikoaren txostena, 2021eko azaroaren 15ekoa.

Donostia kalea, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ Tel. 945 01 86 30 – Faxa: 945 01 87 03



- Txostena, Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzarena, 2021eko azaroaren 24koa.
- Txostena, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzarena, 2022ko otsailaren 10ekoa.
- Txostena, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzarena, 2021eko abenduaren 1ekoa.
- Idazkia, Emakunderena, 2021eko abenduaren 13koa, dekretu-proiektua generoaren araberako eraginari buruzko txostenetik salbuetsita dagoela jakinarazteko.
- Ekonomia eta Ogasun Sailaren alegazioak.

Txosten hau egiteko, oinarritzat hartu dira ekainaren 2ko 7/2016 Legeak (Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa antolatzeak) 5.1. artikuluan ezarritakoa, eta apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuak (Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoarenak) 11.2 eta 2 a) artikuluan ezarritakoa. Biek ala biek lotura dute hauekin: Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioeko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jarduketa-arloak finkatzen dituenak) 7.1.i) artikuluan ezarritakoarekin eta, urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuak (Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak) 15.1.c) artikuluan aipatutakoarekin.

## II. PROIEKTUA EGITEA

Aztertzen ari garen arau-proiektua antolamenduari buruzko xedapen orokorra da, antolamendu juridikoa berritzen duena eta bertan Dekretu forma hartzen duena. Horrenbestez, abenduaren 22ko 8/2003 Legea (Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzkoa) aplikatu behar zaio, 2. eta 3. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Espedientean jasota daude Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren prozedura hasteko agindua, dekretu-proiektua aldeztatik aurretik onartzeko agindua eta saileko zerbitzu juridikoaren txostena. Beraz, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4., 5.1 eta 7. artikuluetan ezarritakoa betetzen dela egiaztatzen da.

Gainera, aipatutako lege-testuaren 10.2 artikulua xedatzen duen bezala, espedientean Justiziako zuzendariaren memoria agertzen da, aurrekariak, egindako izapideak eta horien emaitza jasotzen dituen, bai eta proiektuaren testuan egindako aldaketak ere, egindako txostenen ohar eta iradokizunetara egokitzeo.

Era berean, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 11. artikulua betez, nahitaezko txosten guztiak jaso dira: Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren txostena, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzarena eta Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzarena. Kontrol Ekonomikoko txostena baino ez litzateke falta, eta, apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 13.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak txostena egin ondoren eman beharko du.

Bestalde, antolaketa-izaerako xedapen bat denez, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidetik salbuetsita dago.

Prozeduraren bidez eskatutako txosten guztiak daudela kontuan hartuta, Zuzendaritza honen txostenak ez ditu errepikatuko txosten horiek egin dituzten organo espezializatuak jada landutako alderdiak, horiekin desadostasunik ez badago behintzat.

### **III. HELBURUA**

Dekretu-proiektuan azalpenen zatia, sei artikulua eta azken xedapen bat daude. Proiektuaren helburua da sailtako organoen egitura eta eginkizunak egokitzea espetxeen antolaketaren, araubidearen eta funtzionamenduaren arloko eskumenak bere gain hartzeak eta arlo horretako Estatuko legeria betearazteak dakarrenera. Onarpen hori 2021eko urriaren 1etik aurrera gauzatu da, uztailaren 6ko 169/2021 Dekretuari jarraikiz. Dekretu horren bidez, Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren Akordioa onartu zen, espetxe-arloko Estatuko legeria betearazteari buruzko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko.

#### IV. ESKUMENA

Arau-proiektu horren azken oinarria autoantolaketa administratiborako ahalmen autonomikoa da, Autonomia Erkidegoak bere Autonomia Estatutuaren bidez bere gain hartutako eskumen-sare substantiboaren zerbitzurako izaera instrumentala duena, Autonomia Estatutuaren 10.2 artikulua xedatzen duenaren arabera. Horrek esan nahi du, laburbilduz, antolaketa-erregelamenduaren proposamen bat aztertzen dugula, Administrazioaren antolaketa-ahalmena baita kasu honetan aktibatzen dena.

Horixe denez araua gaitzen duen abiapuntua, kontuan hartu behar da, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.c) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako ahalmen hau ematen zaiola Lehendakariari: sailak sortzea edo ezabatzea dakarten dekretuak ematea, gastu publikoa handitzea ez badakarte, bai eta sailen izenak eta eskumen-banaketa aldatzeko dekretuak ematea ere. Bestalde, aipatu Legearen 26.2 artikulua arabera, sailburuen ardura da honako hau: «...*lehendakariari proposatzea kasuan kasuko sailaren egitura eta antolaketa onestea*».

#### V. EDUKIA

Urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuak (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak) Justizia Sailburuordetzari esleitzen dio espetxeen arloko eskumen autonomikoak baliatzeko plangintza egitea, eta Justizia Zuzendaritzari, berriz, zigor- eta espetxe-legeria betearaztea, bere eskumen-eremuan, eta Jaurlaritzak arlo horietan egiten dituen gainerako jardurekin koordinatuta.

Dekretu-proiektuak aldatu egiten ditu Justiziako Sailburuordetzaren, Justizia Zuzendaritzaren, Justizia Administrazioaren Zuzendaritzaren eta Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritzaren eskuduntzak. Ildo horretatik, zuzendaritza-organo horien artean banatzen dira aipatutako eginkizunak eskualdatzeak berekin dakartzan egiteko nagusiak. Horrela, espetxeetako langileen ohiko kudeaketa Justizia Administrazioako Zuzendaritzari

esleitzen zaio; azpiegituren kudeaketa Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritzari esleitzen zaio, eta Justizia Zuzendaritzari, berriz, barne-araubidearen antolaketa eta ikuskapena.

Halaber, zehazten da esparru autonomikoan zer organok hartuko dituzten beren gain espetxe-legerian aipatzen den zuzendaritza-zentroaren berezko eginkizunak.

Azkenik, adierazi behar da sailaren txosten juridikoan proiektuaren artikuluen azterketa zehatza egiten dela, eta bertan egindako oharrak neurri handi batean behin betiko testuan sartu direla.

## **VI. ONDORIOA**

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua bigarrenez aldatzen duen Dekretu-proiektuaren aldeko txostena igorri da.

Txosten hau egin dut, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste baten mende jartzen dut.